

Hainbat IDEIA
ikasketa honi buruz:

GURE INGURUMENA ZAINTZEN IKASTEN DUGU

BA AL ZENEKIEN...?



- 70-80ko hamarkadetan Bilbok Europako eta Munduko atmosferarik kutsatuenetako bat zuen, eta atmosfera kutsatuko ingurutzat jo zuten.

- Finlandian jaten dituzten Baltikoko Arrainak ezin dira EBko beste herrialdeetara esportatu, dioxina maila altuagatik. Hori dela eta, herritarrei kontsumoa gutxitzea gomendatzen die Administrazioak (Consumer 04/04/24)

ETA GUK, GAZTEOK, ZER EGIN AHAL DUGU?

- Gure zeregina askotarikoa da. Alde batetik, herritarrok Administrazioari eskakizunak egiteko gaitasuna dugu. Bestalde, kutsadura sortu eta ondasunak zein zerbitzuak kontsumitzen ditugu. Horregatik, ingurumenaren aldeko jarrera garatu behar dugu.

- Garraio publikoa erabili.

- Berogailua behar duzun neurrian bakarrik erabili. Tenperatura igotzen dugunean, gradu bakoitzeko %7 igotzen da energiaren kontsumoa.

- Zuhaitzek airea garbitzen laguntzen dute. Zuhaitzak landatu.

- Zeure burua zaindu: eguzkia hartzera bazoaz ez ahaztu krema jartzea. Badakizu eguzki izpiek mindu ahal zaituztela!

- Ez kontsumitu behar ez dituzun produktuak. Horrela, gutxiago ekoiztu eta kutsatuko duzu.

GURE INGURUMENA ZAINTZEN IKASTEN DUGU

1. jarduera:



ESPERIMENTU BAT... ZERTARAKO

Zer behar dugu?

Tomate erdia, fruitu baten zuztarra, adar bat hostoekin, kotoi zatia, lata huts bat, eta poliespanezko erretilua.

Nola egingo dut?

Gauza horiek lurperatu patioan egindako zuloetan, edo loreontzi banatan. Handik 30 egunera lurpetik atera.

Zer aldatu da?

Zer ikusi duzu, edo zer aldatu da?

Zergatik?

Naturak "birziklatzeko" ziklo bat du. Ziklo horretan zati organikoak (tomateak, fruituak, hostoak...) eraldatzen ditu, eta mineralak eta humusa sortzen dira, luraren zati eta landareen edo animalia txikien janaria direnak. Kotoiak denbora gehiago behar du eraldatzeko. Poliespanezko erretilua ez da inoiz eraldatzen, ez da hondatzen, eta ehun mila urte dirau naturan era horretan.

Zer egin dezaket?

Ez erosi berriz erabili ezin den paketerik...

Ahal duzun bestetan berriro erabili bestelako zereginetarako. Jantziak, liburuak, jokoak oparitu, horiek erabiliko dituen baten bati. Plastikoak saihestu. Metal, beira eta paperari dagozkien edukiontziak erabili, berorien materialak birziklatzeko. Hondakin organikoak (janari edo landareenak) ere bai.

Patioa baldin baduzu, kutxa handi batean sartu ahal duzu, lurrez estali eta lorategirako ongarria lortu. Eskolan ere egin daiteke eta gero erabili loreak landatzeko...

2. jarduera:



Bizitzaren piramidea

Jarduera honetan gutxienez 12 neska-mutilek parte hartu behar dute.
Jarraibideak adi-adi entzun.

Zuetako bakoitzak izaki bizidun bat aukeratzen du. Izaki hau landarea, animalia barazki-jalea edo animalia haragijalea izan daiteke. Ondoren, landareak lau hankatan jarriko dira, norabide berera begira eta sorbaldekin batak besteari ukitzen ilara egiteko. Haien gainean, jarrera berdinarekin, barazki-jaleak ipintzen dira, eta hirugarren mailan, barazki-jaleen gainean, haragijaleak ipintzen saiatzen dira.

Zer gertatzen da?

Seguru asko, haragijale gehiegi izango dituzue eta landare gutxiegi. Beraz, animalia batzuk landare bilakatu behar dira neurririk onena lortu arte, **bizitzaren piramidea** osatzeko asmoz.